

Maritxu eta Katalina

Artxiboetan galdutako sexu eta genero disidenteen istorioak Historiaren parte direlako

XV. mende bukaeran edo XVI. mende hastapenean Belauntzako Katalina atxilotu, preso sartu, torturatu, guziaz desjabetu eta erbesteratu egin zuten, Oiartzungo Maritxurekin "haragizko harremanak" ukateagatik. 500 urtez isilean eta artxiboetan galdurik egondako gertakizun horren berri dugu historiografia tradizional androzentrikoa miatzen dabiltzan historialariei esker. Hain zuzen, guti aipatu arren, iraganean ere bazirelako sexu eta genero disidenteak eta "bekatoros" horiek desagerrarazteko bideraturiko balore eta zigor-sistemak. Isilduriko istorio horiei aitortza egitera eta Historia hori argira ekartzera datoz *Dardarak artxiboan* erakusketa eta *Dardarak* liburu ilustratua.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Gertakizun batzuk komunitatearen memorian kokatu eta beste batzuk isildu egiten ditu Historiak, beti ere boteretsuen ikuspegiari eta nahiari segi. Iraganeko zenbat gertakari, begirada, ekarpen eta bizipen ditugu ahaztutaren erreinuan metaturik? Hor genuen, errautspean, demagun, Belauntzako (Gipuzkoa) Katalinaren kasua, Oiartzungo (Gipuzkoa) Maritxurekin harreman sexualafektibo bat bizitzeagatik, atxilotu, preso sartu, torturatu, bere ondasun guztietatik desjabetu eta erbesteratu zutena.

XV. mende bukaeran edo XVI. mende hastapenean gara, eta Angel Solorzano historialariak 1503ko uztailaren 21eko Gaztelako Entzutegi Gorenaren epaia argira ekarri izanari esker dugu horren berri. "Gizon eta emakume bezala erabiltzen zuten elkar, bata bestearen gainean biluzik jarrita, elkar ukituz, musukatuz, sabel biluzien gainean zamalkatuz... gizon batek emakume batekin bakarrik egin behar dituen haragizko ekintzak egiten zituzten", irakurri daiteke epaiak dakartzkien lekukotasunetan. Herritar batek salatu zituen, eta Donostiako auzapez Miguel de Ochoa Olazabalek agindu zuen epaiketa. Katalinaren eta Maritxuren arteko haragizko



Dardarak artxiboan, ikusgai:

- Urtarrilaren 15etik aitzina hilabetez **Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan**
- Martxoaren 6tik 30era **Donostiako Aieteko Kultur Etxean**
- Etortzeke: **Orereta, Durango...**

harreman horiek "fama publikoa" omen zuten, hau da, bien arteko harreman sexu-afektiboaren berri bazekiten donostiarrek. Bekatuan, eta gainera ausardiaz! Ezin zuen horrelakorik onartu Donostiako auzapezak. Leporaturikoa gezurra zela berretsi eta "fama onekoa" zela argi utzirik, biziari gogorki lotu zitzaion Katalina –baita torturapean ere–. Baina, errudun jo eta ondasun guztiak kendu, auzi gastuak ordainarazi eta erbesteratu egin zuten, mehatxupean: Donostiara itzuliz gero, "plazan soka batetik buruz behera zintzilikatuko zuten, hil arte".

Ez zen kikildu, eta helegitea jarri zuen Valladolideko Kantzileria Auzitegian. Dei egin, baita irabazi ere: absolutu egin zuen epaileak, eta "fama oso-oso" itzultzea behartu Donostiako auzapeza. Bizilekura, edo behintzat inguruetara itzuli zela badakigu, Donostiako Elizabarrutiko Artxibo Historikoan aurkituriko agiri bati esker: Belauntzako Katalina 1546an hil zen Tolosan. Oiartzungo Maritxuri buruz, haatik, ez dugu –oraingoz– informaziorik.



Katalina eta Maritxuri omenaldia egin diote azaroaren 22an, Belauntzan, hau da, Katalinaren herrian.

ERREPARAZIO SINBOLIKOA

Azaroaren 22an oroitu eta omendu dute herriko Katalina, Belauntzan bertan. Multzoñoa elkartu eta herriko arima hori oroitzen "oso gustura" egon izana azpimarratu du antolatzaileen artean egondako Joana Aurrekoetxeak. Nola-baiteko aitortpena eta eskertza egin nahi

izan diete, "herri honetako Historiaren zatitxo bat berreskuratu, eta Katalinari zein Maritxuri –baita beste sexu eta genero disidenteei– aitortza eta erreparazio sinboliko bat egiteko".

Guztien artean osaturiko erreparazio ariketa bideratu ondoren, Belauntzako lurretan errotuko den limoioondo bat eskaini zitzaion Katalina eta Maritxuri. Herriko plazari "Katalina eta Maritxuren plaza" izena jartzearen ideia ere atera zen omenaldiaren ondoko solasaldi informaletik, karriken izendegia aztertze-ko eta osatzeko prozesu parte-hartzaile bat abiatu duelako, hain justu, Belauntzako Herriko Etxeak. Ederra litza-teke: XV. mende bukaerako Donostiako auzapez hark zigorturikoaren eta heriotza mehatxupean haizutatukoaren izena herriaren bihotzean jarriko luke 500 urte berantago Belauntzakoak.

Historia hegemoniko androzentrikoak gordetakoak azaleratzen dabiltzanei esker ezagun egin da Maritxu eta Katalinaren kasua. Baina ez dira bakarrak: genero adierazpen, sexualitate, gorputz eta harreman eredu ez normatiboak izan dira iraganean ere, sexu-moralaren aurkakoak izateagatik zigortu dituztenak. "Ugariak" zirela dio Solorzano historialariak: Valladolideko Kantzileria eta Errege-Audientziaren 500 dokumentuz gora dira horri lotuak, delituen %9a. Jakin behar da, gainera, kasu anitz ez zirela auzitegietan epaitu, baizik eta karrikan, sodomiaren kontra "ganibeta batez mendekatzeko" bidea ematen ziolako legeak komunitateari.

"Informazio eta literatura guti daukagu emakumeen eta sexu/genero disidenteen historiari dagokionez, eta are gutiago beraien plazerari dagokionez. Jesusek [Solorzanok] dio artxiboetan



direla, baina interesik ez dagoenez ez direla oraindik jakinak", Aurrekoetxearen hitzetan. Azkenean, epai judizialean ditugu errealitate horiei buruzko informazio gehienak. Balore-sistema androzentrikotik idatzitako dokumentuak badira ere, inportantzia handikoak dira orduko sexu eta genero disidenteen errealitatea berreskuratzeke.

Berreskuratze ariketa hori egin nahi izan dute Aurrekoetxeak eta Karmele Mitxelenak, *Dardarak artxiboan* erakusketarekin. Erdi Aroaren eta Errenazimentuaren arteko Mendebaldeko Europari begira jarri eta ikusezin bihurtu nahi izan zituzten horiei begira jarri dira.

SODOMIAREN DELITUA

Garai horretan eman ziren aldaketa handiak sexualitateari buruzko begiradan: emakumeek gizonen desira sexualei erantzun behar zieten, batez ere ugalketaren funtzioa betetzeko – eta bistan denez, erlijioak gidaturik, Jainkoaren mandatuari segika-. Funtzio horretan ez zen beste gutxia "sodomia" terminoaren baitan bildurik zuten, guztiak zirela "naturaren aurkako bisio", "bekatu" eta "delitu". Emakumeen sodomia gero eta delitu larriagotzat jo zuten XI. eta XIII. mendeen artean, eta *matxinak* –garaiko dildoa- erabiltzea bekatu izugarri gisa kontsideratu zuten. Espainiako Errege-



eta hondamendi naturalen ekarle zirela pentsatzen zelako. Plaza publikoaren erdian erreak izan ziren anitz, harreman debekatuak ukateagatik. *Dardarak artxiboan*-en batzuk ekartzen dizkigute argitara: 1489 urtean, Sevillako San Francisco plazaren erdian, Marina Avilakoa eta Katalina Baenakoa urkatu zituzten "gizonak balira bezala emakumeekin haragiz lo egiteagatik"; 1477an, Katherina Hetzeldorfer Nurembergekoa Rhin ibaian itota exekutatu zuten, rol maskulinoak gorpuzteagatik; eta Céspedesen kasua ere argira ekartzen digute, 1545ean Granadako herri batean esklabu jaio zena, eta sodomia, heresia, ezkontza sakramentuarekiko mespretxua, eta sorginkeriatatik gogorki zigorturikoa, tartean, ehunka azote publikoki jasota. Historia hegemonikoak aipatzen ez baditu ere, nahi edo ez, izugarrikeria horiek hor dira, Historiaren parte.

ANAKRONISMOA SAIHESTEKO ARDURA

Ariketa ez dute baitezpada erraza izan Aurrekoetxeak

eta Mitxelenak; eta ez da baitezpada ez direlako historialari: balore-sistema androzentrikoak osaturiko historiak dituen hutsuneak argitzeko zailtasunez gain, irakurketa anakronikorik ez egiteko ardura ere bazuten. "Errespetuz landu ditugu gaiak, alteritate historikoa kontuan harturik, anakronismoak saihesteko. Horrek eskatzen du lesbianismoaren, genero identitateen egungo kontzeptuen ideiak, baita gaur egun gorpuztak eta afektuak ulertzeko modua ere alde batera uztea".

Ardura horri tiraka ondokoa irakurri daiteke erakusketan: "Garaiko adierazpen afektibo eta erotikoen nolakotasuna ez dugunez ezagutzen, zaila egiten da homoerotismoaren [lesbianismoa izendatzeko historialarien termino ohi-koa] azterketa zorrotza egitea. Ondorioz, kasu askotan, isildu eta baztertu egin dira izaera lesbikoa zuten harremanak, eta beste batzuetan, desitxuratu

Epaiaketa anitz epaitegietatik kanpo egin ziren, sodomiaren kontra "ganibeta batez mendekatzeko" bidea ematen ziolako legeak komunitateari

Erregina Katolikoek sodomia gogorrago zigortzeko legea ezarri zuten 1497an, "naturaren kontrakoa" zela argudiatuta.

Desagerrarazteraino zigortu behar ziren –kartzela zigor luzeak, erbestera-tzeak zein hiltzeak bideraturik horretarako-, ordena sozialarentzako arrisku

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



Gaur egungo istorioa da *Dardarak* liburua, Historiarekin zubiak dituena.

edo asmatu". Ohar bera egin daiteke generoari eta sexuari dagokionez. Izen-abizenak eta sexua ikusi eta "bi emakume" identifikatu eta lesbiana gisa ikusi ohi dira. Alta, ez dakigu bi horiek nola esperimentatzen zuten generoa, zein neurritan eta zergatik hartzen zituzten identitate maskulinoari loturiko jarrerak. Ondoko oharra luzatu dute erakusketan: "Ezinezkoa da kasu zehatz bakoitzean emakume gisa irakurritako gorputz bat maskulinitatearen apropiazioa egitera zerk bultzatzen zuen jakitea, baina Erdi Arotik aurrera trabestismo femeninoa edo genero trantsizioak garrantziazko fenomeno historikotzat jotzen dira, interpretazio irekia duten inplikazio askorekin: biziraupen hutsa derrigorezko ezkontzatik libratzeko, gizonen munduari zegozkion jarduerak egin ahal izateko (ikasketak, lanbidea, espazio publikoan izatea), genero arau zurrunik transgreditzeko, sexualitatea beste era batera bizi ahal izateko, edo nork daki".

Garai ezberdinek irakurketa ezberdinak dituztela jakitun, *lesbian-like* kontzeptua proposatu zuen Judith M. Bennett historialariak 1998an: lesbiana hitza erabiltzen ez den garai batean, gizonekilako dominazio harremanetatik –tartean, ezkontza– aparte bideraturiko jarrera eta esperientzia sozialak dituen *lesbian-like* –"lesbiana

bezala"– definitzen da, bizitza modu independentean eta genero eta sexu roletatik aparte eramateagatik.

LIMOIA: BELAUNTZAN, ERAKUSKETAN ETA 'DARDARAK' LIBURUAN

Limoiondoa kausituko du ikusleak *Dardarak* artxiboan espazioan, eta ez da kasualitatea. Hain zuzen, Katalina eta Maritxuren historiaren oroimen eta aitortza ariketaren parte delako erakusketa. Horrez gain, helburu horri tiraka *Dardarak* (Txalaparta) umeentzako album ilustratua ere hor dute Aurrekoetxeak eta Mitxelenak, Irene Iruretak ilustraturikoa eta hiruen artean osaturikoa. Maritxu eta Katalina ditu protagonistak, XXI. mendeko bi emakume adindun, elkarrekin bizi direnak, elkar maite dutenak eta bata bestearantz atxikitu direnak. Sexu eta genero disidentziak islatzen dituen haur eta gazteentzako literaturaren inguruan Oartzunen antolaturiko Ku-ku egunaren baitan sortu zuten *Dardarak*. Behin eta berriz, izen bereko Oartzun-goari eta Belauntzakoari begi-kliska egiten die liburuak. "Gaur egungo istorioa da *Dardarak*, iraganarekin, historiarekin zubiak dituena. Fikzioa, historia eta gaur egungo errealitatea, hiruen arteko nahasketa bat da", dio Aurrekoetxeak. Proiektu horretan ere limoiak jarri dituzte azalean. ●

1990ean sortua